



Gomendioizagirre etxebizitza

Aldacrak: Mututu / Etxetxobarria
Ahozkoa: Mututu



43° 9' 41"

2° 34' 20"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Topatutako lehen arrasto dokumentala 1770ekoa da, eta bertan Murgoitio kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hori. Baserria Eloorrora doan errepidearen behealdean kokatzen da, *Uriberrekaren* ondoan. Aurrealdeko leihoan inskripzio bat du, eta “1809” urtea ikus daiteke. Egungo etxea eraiki zeneko data izan daiteke hori. Jasotako informazioaren arabera, dirudienez 400 urte atzera egin behar dugu baserri honen jatorria topatzeko. Antza, jatorrizko baserria egungo baserria baino apur bat goraino kokatuta zegoela, eta hura zaharkitua geratu edo jauzi egin zenean, egungoa eraiki zutela errekaren ondoan. Auzokoei baserriari erreferentzia egiteko *Mututu* izena erabiltzen dute, gutxienez XIX. mendearen erdialdetik hona (*Mututua*, 1857). Dirudienez, ezizen hori familiatik dator: sekretuak gordetzeko abilak omen ziren,

eta, horregatik, *Mututu* esaten zieten. Denboran zehar mantendu da, eta Berrizko jende guztiak baserria izen horrekin ezagutzen du. *Etxetxobarri* eta *Etxebarri* izenak ere dokumentatuta daude, eta baliteke *Gomendioizagirre* etxe berria egin zenean izen hori hartu izana.

XIX. mende hasierako etxea da, bi isuritako teilatua duena. Zerbait alboratuta dauka sarre-rako atartea, arkuduna barik, zurezko dintel-duna. Leihoak urriak dira. Beheko solairuan, bakarra eta nagusian, hiru. Ganbaran, aireztatze-ko, bi bao handi eta beste txiki bi. Harlangaitzaz jaso, baina harlandua erabili zuten ate eta leihoen ertz guztiak egiteko, baita leiho-hegiak ere solairu nagusian. Erdikoak inskripzio bat dauka, oso baliagarria datatu ahal izateko: 1809.